



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak”

2023ko maiatzaren 14a  
6. Pazko igandea (A)

### Joan 14, 15-21.

“Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak. Nik Aitari eskatuko diot eta beste Laguntzaile bat emango dizue, beti zuekin izango dena, egiaren Espiritua. Mundutarrek ezin dute hartu, ez baitute ikusten, ez ezagutzen; baina zuek ezagutzen duzue, zuengan bizi baita eta zuekin egongo betiko.

Ez zaituztet umezurtz utziko, itzuliko naiz zuengana. Laster munduak ez nau gehiago ikusiko; zuek, ordea, ikusiko nauzue, nik bizia baitut eta zuek ere biziko baitzarete. Egun hartan ulertuko duzue ni Aitarekin bat eginda nagoela, zuek nirekin eta ni zuekin. Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite. Ni maite nauena, berriz, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari”.

Neuk eskatuko deutsat Aitari veste defentzaile bat bialdu dagitsuela. Aita, goratu egizu zure Semea. Paraklitoa dogu Jesusen presentzia bere taldekoen artean lusatzen dauana.

## EZ GARA UMEZURTZ GELDITU

*José Antonio Pagola*

Elizak, osatzen duten kristauak Jesus oker ezagutzen badute, gutxi maite eta ohikeriaz doi-doi oroitzen badute, arriskua du pixkana itzaltzen joateko. Kristau-elkartea, itzalia den Jesus baten inguruan bildua, ez erakartzen eta ez bihotza ukitzen duena, etorkizunik gabeko elkartea da.

Jesusen Elizan premia handiko beharra dugu harekiko harremanetan beste kalitate bat izatea. Jesusen esperientzia biziak markatuak diren kristau-elkarteen beharra dugu. Denok egin dezakegu zerbait, Elizan Jesus beste era batean sentitu eta bizi ahal izateko. Eliza Jesusi lotuagoa izatea eta hari atxikiago bizi ahal izate geure esku dugu. Nola?

Jesusen Azken Afariko agurra berregin du Joanek bere ebanjelioan. Ikasleek susmoa izan dute, Jesus kendu egingo dietela laster. Zer izango da orduan haietaz, Jesus gabe? Nori jarraituko diote? Non elikatuko dute beren esperantza? Samurtasun bereziaz mintzo zaie Jesus. Haien artetik joan aurretik, berarekin nola bizi ahal izango diren ikusarazi nahi die, hil ondoren ere.

Beste ezer baino lehen, bihotzean ezarria izan behar dute hau, inoiz ere ahaztu behar ez dute hau: «**Ez zaituztet umezurtz utziko. Itzuliko naiz**». Ez dute pentsatu behar sekula bakarrik direnik. Esperientzia berri batez mintzo zaie Jesus, inguratuko eta biziaraziko dituen esperientziaz, zeren beren izatearen hondoenean harrapatuko baititu. Ez ditu ahaztuko. Etorriko da eta haiekin izango.

Jesus, jada, ezin ikusi izango da mundu honetako argiaz, baina jarraitzaileek atzeman ahal izango dute fedearen begiez. Ez ote genuke arduratu behar, askoz ere gehiago, Jesus berpiztuak gure artean duen presentziaz? E ote genuke biziberritu behar haren presentziaren ustea? Nolatan lan egin dezakegu mundu gizatarrago baten eta ebanjelioaren tankeragoko Eliza baten alde, Jesus geure aldamenean sentitzen ez badugu?

Esperientzia berri batez mintzo zaie Jesus, ikasleek orain arte, Galileako bideetan zebiltzala, ezagutu ez dutenaz: «**Jakingo duzue ezen neure Aitarekin nagoela ni eta zuek nirekin**». Hauxe da gure fedea sostengatzen duen oinarriko esperientzia. Geure kristau-bihotzaren hondoan badakigu Jesus Aitarekin dagoela eta gu Jesusekin gaudela. Dena aldarazten du honek.

Esperientzia hau maitasunak elikatzen du: «**Maite nauena... neuk ere maite izango dut eta agertuko natzaio**». Daitekeena ote da Jesusi jarraitzea egunean eguneko gurutzeta hartuz, hura maite izan gabe eta hark bihotzez maite gaituela sentitu gabe? Daitekeena ote da kristautasunaren gainbehera saihestea, maitasun hau biziberritu gabe? Zer indarrek mugitu ahal izango du Eliza, maitasuna itzaltzen uzten badugu? Nork bete ahal izango du Jesusek utzitako hutsunea? Nork ordeztu ahal izango du gure artean Jesusen presentzia bizia?